

## Kultura sustatzeko hitzarmenak

Lasarte-Oriako Udalak 15.000 eurotako laguntza banatuko du Zero Sette akordeoi orkestra, Erketz Dantza taldea, Alboka abesbatza eta Semblante Andaluz elkarten artean

**E**rketz Dantza taldea, Semblante Andaluz, Zero Sette akordeoi orkestra eta Alboka abesbatzak 2010eko hitzarmena sinatu zuten astelehenean Lasarte-Oriako Udalarekin.

Jesus Zaballos alkateak, Jone Altuna kultura batzorde burua eta Xabier Goitia kultura teknikaria talde kulturalako ordezkariak, Elias Goikouria Zero Sette akordeoi orkestratik, Antonio Pedraza Semblante Andaluz elkartetik eta Isabel Hernandez eta Isabel Torres Alboka Abesbatzatik, bildu zen hitzarmen-sinatzearen ekitaldia egiteko. Erketz Dantza taldeko ordezkariak ezin izan zen ekitaldian egon.

### Helburua

Kultura hedatzea eta sustatzea arloko hitzarmenak dira astelehenean sinatu ziren lau hauek.

Ondorioz, Lasarte-Oriako folklorea eta kultura musikala garatzea eta, Semblante Andaluzen kasuan, gure herrian Andaluzia Erkidegoko folklorezko eta musikazko tradizioak garatzea dute helburu batetik. Baina, era berean, taldeek gure herriaren kultura

ordezkari eta erakusle izatea ere aurreikusten da hitzarmen hauetan.

Honetarako, Lasarte-Oriako Udalak 15.000 bat eurotako laguntza emango du era honetara banatuta: Erketz Dantza taldeak 2.705 euro izango ditu; Semblante Andaluz taldeak, 2.988 euro; Zero Sette akordeoi orkestrak, 2.989 euro eta, azkenik, Alboka abesbatzak, 6.182 euro.

### Ekitaldiak eta aholkua

Laguntza honen truke talde kulturalak hainbat puntu bete behar dituzte.

Erketz Dantza taldeak, esate baterako, urteroko tradiziozko ospakizunetan parte hartu behar du, hau da, udako solstizioa eta San Pedro jaietan. Honetaz gain, Udalarik aholku emango dio folklore egitarauan.

Zero Sette akordeoi orkestrari dagokionez, urtean bi emanaldi egin behar ditu; Lasarte-Oriako Udalarekin ados jarrita beste akordeoi orkestra kontzertu bat antolatzeko konpromezua hartzen du, honekin elkartrukea egiteko aukera izango duelarik eta



Lasarte-Oriako alkatea, kultura saileko ordezkariak eta talde kulturalak ordezkariak hitzarmen sinaketa ekitaldian.

akordeoi jaialdia antolatuko du.

Bestetik, Semblante Andaluz elkarteko taldeek urtean bi emanaldi eskainiko dituzte; elkarteak Rocioko Ama Birjinaren erromeria eta urtean zehar egindako jardueren eta Andaluziako Erkidegoko egiten ari diren kultur jardueren erakusgarri den kultur astea antolatu behar ditu eta era berean, dantzaren eta folkloreak egitarau elkarte eta

Udalaren arteko lankidetzaren emango da.

Azkenik, Alboka abesbatzak urtean bi emanaldi eskaini behar ditu eta Udalak eta abesbatzak horietako xehetasunak adostuko dituztela sinatzen da hitzarmenean. Hala ere, salbuespen bezala, San Pedrotako kontzertua Brigitar Amen komentuan dela adierazten da. Honetaz gain, Alboka txiki abesbatzaren garapenaz

arduratuko da, honen kontzertuak sustatuko ditu, baita egon daitezkeen haur abesbatza gonbidatuak ere. Era berean, Alboka abesbatzak bere gain hartuko du beste abesbatza gonbidatu batzuek Lasarte-Oriako eskainiko dituzten kontzertuak antolatzeko eta hauekin trukeak egin ahalko ditu. Eta Erketzen antzera, Udalarik aholku emango dio koru-musikaren egitarau gaietan. •



Gabonetako txokoak ipuinen munduan murgilduko dira, egunero ipuin bat, abentura bat... /3


### KIROLA /6

Texas Lasartearra gailendu zen Erregionalen bigarren derbian

### KIROLA /6

Hainbat atleta lasarteoriatarrek hartu zuen parte igandean Donostiako Maratoian

Hurrengo TXINTXARRI abenduaren 13an, astelehenean, argitaratuko dugu.



## SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471  
Lasarte-Oria  
www.sugate.net

**Neure kabuz**



**Xabierko Frantzisko**

Gaur Nafarroan jai handia ospatzen da eta Euskal Herrian berdin behar luke. Beno, egia da, ikastoletan ospatuko dutela, zeren euskararen eguna bai da, baita beste hainbat leku eta elkartetan ere. Nik hemen, aldizkari honetan ere ospatu nahi dut. Orain, egun hau, euskararen egun bezala aukeratu zutenek, zergatik egin ote zuten hori galdetzerakoan, ez dakit jende askok jakingo genukeen erantzuten.

Nik dakidana hau da. Xabierkoa, misiolari jesulagun bezala Indiatik Japoniara ari zelarik urteetan, azkenean bere ilusio guztia Txinara joatea zela eta horixe zuela azken amets. Hango lagun batzuei esker txalupa bat hartu, abian jarri eta Txinako itsasoa deiturikoan barna abiatu zirela eta izugarritzko eguraldi txarrak jasanez, ezin izan zetela iritsi eta gainera gaitxotu eta uste baino larritasun handiagoz gainera. Lagunek, uharte batera eramane eta hango jendearen babespean hil zen. Hiltzeko ordu hartan gertatuak, agian, izango zuen zer ikusirik bere euskal izatearekin, besteak beste, zeren dakiguna da, errezoan hasi zela, inork ezin ulertzuko hizkuntza batean jardun zuela, azkenean arte, eta behin eta berriz esaten zuena zela hau: ama, nire ama maitea...

Hango jendeak jakin bazekiten apaiz hura Europatik etorria zela eta, Jesukristoren bide berria erakustea zuela gogoan, pentsatuz hartara, mundu guztiak jakingo zuela zein zen benetako askapena, senidetasuna, alegia. Euskaldunak itxiak garelako esateko moduan! Predikatzaile ospetsua. Lagun estimatua. Fededun sakona. Ezin ulertu zutena zera zen, nola zitekeen bere herria, bere ama, bere Europako bizitza utzi eta bertara joatea, hain gizon jakintsu eta ospetsu izanik. Zerk deitzen ote zion, zeren bila ote zebilen, zer bultzatu hainbesteko arriskuak hartzeraz? Gaur Indiako Goa herrian dago hilobiratua eta, ikusi egin behar da sinesteko, zenbaterainoko gurtza ematen dioten bertakoak, gure Xabierko Frantzisko nafar euskaldun eta kristau fededun handiari.

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Goitz**

Zoriona printzesa! Eta 4 muxu handi guraso, aitona eta amonaren partetik.



**Olatz**

Zorionak amatxo! Ongi pasa eta muxuak! Noah, Garazi, Artz, izeba, osaba, aitaxi eta amatxi.



**Aritz**

Zorionak! Ondo pasa zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat Eneko eta gurasoen partetik.



**Itziar**

Zorionak Txir! Gorde "Power" pixkat txar-rangarekin dantzatzeko. Patxu pila!!



**Olaiz**

Zorionak Olaiz! Kanpuan ospatuko deuen, beraz egingo deuen party ear bat! Ondo pasa!



**Oier**

Zorionak! Jaten baduzu beti horrela errealeko atezaina izango zara.



**Maitane**

Zorionak zure 14. Urtebetetzean. Ondo pasa familiaren partetik.



**Ander**

Zorionak sagutxo. Bi muxu handi Asier, aita eta amaren partetik.



**Aimar**

Zorionak printze! Lau muxu marrubizkoak familia guztiaren partetik.



**Izaro**

Zorionak aitaxo eta amatxoren partetik. Muxu handi bat!!!



**Urko eta Odei**

Zorionak bikote! Ondo-ondo pasa! Aitonena, amonena eta gurasoen partetik, bi muxu handi!!!



**Ander**

12 urte beteko dituzu. Zorionak bihotzez maite zaituzten amatxo, aitona-amona eta izeba-osaben partetik.

**Azoka txikia**

**Eskaizta inmobiliarioak**

• Usurbilgo kaxkooan pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldia, komuna eta trastelekuarekin. Dena berrituta eta amueblatuta. 3 balkoi eta oso eguzkitsua. Igoailua ere badu. 246.500 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 686 969 112.

• Garaje alokatzen dut marra bat Atsobakar auzoko Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

**Lan-eskariak**

• Orduka umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Umeak eta jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 635 217 362.

• Jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Interna edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako telefono zenbakia: 697 946 546.

\* Atal honetan oharra jarri nahi baduzu, bidali beheko helbideetara asteazken eguerdia baino lehen.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 3**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Larunbata, 4**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Igandea, 5**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astelehena, 6**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Astearte, 7**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteazkena, 8**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Osteguna, 9**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Ostirala, 10**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Larunbata, 11**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Igandea, 12**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astelehena, 13**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Astearte, 14**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Asteazkena, 15**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Osteguna, 16**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Jaiotzak**



- Uxue Parra Beobide, azaroaren 28an
- Zanab Naz, azaroaren 4ean

**Heriotzak**



- Antonia de la Encarnacion Gomez, abenduaren 1ean 92 urte zituela
- Jose Sastre Sastre, azaroaren 28an 75 urte zituela.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





Kalitatezko pintxoak aurkeztu ziren Munterri-AEKko pintxo lehiaketan. Argazkian, goizeko lehiaketan parte hartu zuten ikasleak.

## Kalitatezko pintxoak eta euskara

Munterri-AEKko ikasleek pintxo lehiaketa izan zuten

Euskararen egunari aurre hartuz, atzo, Munterri-AEK euskaltegiak era paregabean ospatu zuen egun seinaltatu hau, ikasleek arteko pintxo lehiaketa.

Bi txandatan, goiza eta arratsaldea, euskara ikastera doazen ikasleak euren artean lehiatu ziren txapelketako garaile izendatzeko.

Bete beharreko baldintza pintxoak perretxikoa, urdaiaz-pikoa eta piperrak izatea zen.

Euskara ikasleak sukaldari trebeak direla argi eta garbi erakutsi zuten. Urteik urtera maila handiagoa eta pintxo landuagoak ikusten dira.

### Epaiak zailtasunak

Goizeko lehiaketan, *Txapela Buruan*, *Korrikalaria*, *Abenduko ezti*, *Tipularen nana*, *Pintxo Totala* eta *Estropadak* pintxoak lehiatu ziren, pintxo

goxoenaren, aurkezpen onenaren eta izen originalenaren saria eskuratzeko.

Sei pintxo hauen artean irabazleak aukeratzeko zailtasunak izan zituzten Iñaki Taberna, Ttakun eta euskaltegi ordezkariek.

Sariak banatu baino lehen adierazitako hitzetan, pintxoek kalitate handia zen eta hau puntuak emateko orduan kontuan izan zutela azpimarratu zuten.

Arratsaldean, berriz, *Ustekabeko meta*, *Ahamen gazi gozo bat*, *Pasio-Lore*, *Baso xarmandu ihintza*, *Mendia itsasoaren bila* eta *Ahaztuen opiltxo*ak izan ziren.

Epaimahaian Iñaki Tabernako sukaldaria, Solaskide egitasmoko partaide bat eta euskaltegi lagunen esku egon zen eta hauek ere ez zuten lan samurra izan garaiak erabakitzeke.

Giro ederrean bi txandetan ikasleek euskaraz hitz egin eta pintxo desberdinak probatzeko aukera izan zuten epaiak bere lana egiten zuten bitartean.

### Pintxo irabazleak

Goizeko txandan, *Tipularen nana* pintxoak lortu zuen zapore goxoenaren saria. *Abenduko Ezti* pintxoak aurkezen hoberenaren saria jaso zuen. Bi pintxo hauek talde berak prestatutakoa ziren. Eta azkenik, izenaren originaltasunaren saria *Pintxo Totalarentzat* izan zen.

Arratsaldeko pintxoek artean zapore goxoenaren saria, *Ustekabeko meta* pintxoak lortu zuen. Aurkezpenaren sariari dagokionez, *Pasio-Lore* pintxoarentzat izan zen ohorea. Eta *Ahamen gazi gozo bat* izan zen izen originalaren saria eraman zuena. •

## Gabonetako txokoak ipuinen munduan

*Egunero ipuin bat, egunero abentura!* lelopean Gabonetako txokoak iritsiko dira Amaraun Ludotekara.

Abenduaren 22an hasi eta urtarrilaren 7a arte, goizeko 9:00etatik 13:30ak arte, ipuinetan durgiltzeko aukera izango dute 2002. eta 2008. urte bitartean jaiotako haurrek.

### Ipuinak ezagutzen

Abenduaren 22an, *Hiru txerri txoen jolasak* iritsiko dira Amaraun Ludotekara, baita *Heidiren istorioak*, *Mari Domingi* eta *Olentzero* ere. Eguberri egunean ez da txokorik egongo, eta abenduaren

27an berriro *txokolatezko etxearen misterioak* ezagutuko dituzte. Hortik aurrera, *Artzai gezurtiaren txantxak* entzun, *Teo hockey egiten*, *Gepetoren jostailuen tailerra* eta urteko azken egunean, *Bremengo musikariak* iritsiko dira ludotekara.

Urte berria ospatu eta egun pare bat deskantsatu ostean, urtarrilaren 3an, *Wally*-ren bila abiatuko dira etxeko txikiak, *Xagu kaskarinaren gomendioak* entzungo dituzte eta *Antxumeak dantzan* ikusiko dituzte. Errege egunean, urtarrilak 6an, berriz, Amaraun Ludoteka itxia egongo da. Eta 7an, txoko

hauek azken egunean ipuin kontalariaren txanda izango da.

### Izena ematea

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, hiru inskripzio mota daude Batetik, abenduaren 22 eta 31a bitartean; bestetik, abenduaren 27tik 31ra gehi urtarrilaren 2, 3 eta 5a, eta azkenik, gabon guztiak batzen dituen. Lehen bi aukerek 64 eurotako balio dute; azkenak, 88 euro.

Izena ematea Amaraun Ludotekan edo Ttakun kultur elkartearen bitartez egin daiteke, abenduaren 17a baino lehen. •

### EUSKARAREN EGUNA

## Argazki masiboa eta kontzertua Jalgin

Urtero legez, gaur, Euskararen Eguna da. Gure herrian Kuadrillategi eta Gazte klubeko gazteek hainbat ekintza prestatu dituzte ospatzeko.

Argazki masiboa aterako dute Andatza plazan, 17:00etan. Nahiz eta gazteek antolatutako gauza izan, adin guztietara irekia dagoela gogora arazten dute. Ez ahaztu koloretako aterki bat eraman behar dela.

Argazkia atera ostean, 18:00ak aldera, gazteak Jalgi kafeantzokira hurbilduko dira. Bertan, Itzartu taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. •

### MARRAZKI ETA PINTURA

## Jai egunak marrazki eta pinturako ikastaroan

Lasarte-Oria Bizilagunen Elkarteko Pintura eta marrazki eskolarik ez da egongo abenduko jai egunetan, hau da, abenduaren 6, 8, 24, 25 eta 31n kultur etxea itxita egongo delako. Urtarrilaren batean ere ez da saiorik egingo.

Era berean, saioetan lekuak daudela gogora arazi dute eskolako antolatzaileek. Asteazkenetan, 18:30etik 20:30era, 17 urtetik aurrerakoak doaz; ostiraletan, ordutegi berean, 7 eta 16 urte arteko gazteak eta larunbatetan, berriz, 9:30etatik 11:30etara da saioa eta 10:30etatik 11:30etara txikiak, 3 urtetik 7ra, doaz.

Marratzen ikasi nahi duenak izena emateko aukera du egun horietan. •

### IKASLE ABERTZALEAK

## Herri eskola Konstituzio egunean

Hispanitatearen egunean, urriaren 12an egin zen bezala, ikasle abertzaleak Konstituzio egunean Herri Eskola antolatu dute Landaberri DBHn.

Era honetara, euskal ikasleek egun horretan ezer ospatzeko ez dutela adierazteko, normaltasunez, klasera joango dira goizez. Lehenengo orduan, 10:30ean, hitzaldia izango dute; 11:00etan, olinpiadak izango dituzte; 12:30ean, indarrak berreskuratzeko hamaiketako egongo da eta 13:00etan, ikasle abertzaleen aurkezpena egingo da. •

### SAHARA HERRIAREN LAGUNAK

## Kontzentrazioa Sahara Herriaren alde

Abenduaren 11n, larunbatean, Sahara Herriaren Lagunak taldeak kontzentrazioa antolatu du Lasarte-Oriako udaletxearen aurrean eguerdiko 12:00etan.

Abenduaren 10ean, Giza Eskubidearen eguna izanik "momentu aproposa iruditu zaigu Mendebaldeko Sahararen egoera salatzen" azaldu digute antolatzaileak. Saharar herriaren egoera gero eta larriago den honetan "herritarrek euren elkartasuna erakusteko gonbitea luzatu nahi diegu" adierazi dute. •



2010. urte hasieran Kontu Kantoirean ipuin bereziak arretaz entzun zituzten umeek.



# Aterpea, 17 urte Lasarte-Oriako herriaren zerbitzari

Eguneroko jardunean zein profesionalean hobekuntzak eta hainbat zerbitzu jasotzen dituzte Aterpeako bazkideek: abantailak dituzte Cajarural-ekin lan egiten badute; laguntzak eskaintzen zaizkie, besteak beste, etenik gabeko hezkuntza, denda edota saltokia hobetzeko diru-laguntzak eskatzeko edota kalitate ziurtagiriak lortzeko; Aterpeako dendatan dabilzan bezeroak saritzeko zenbait promozio eta kanpaina egiten dira urtean zehar; gainera Udalarekin eta Jaurlaritzarekin merkataritzaren aldeko jarduerak bultzatzeko hitzarmenak sinatu ditu Aterpeak. Izan ere, azken finean, lan guzti honen helburua Lasarte-Oriaren merkatalguneak zaintzeko eta lasarteoriarrek herrian erosten jarraitu dezaten talde eraginkor bat izatea da.



[www.comercio-gipuzkoa.com](http://www.comercio-gipuzkoa.com)



**BAZAR ABREU**, Diego



**ARITZA** merceria, M<sup>a</sup> Carmen  
[www.merceriaaritza.com](http://www.merceriaaritza.com)



**ARREGUI** elektrizitatea, Mikel eta Ainhoa  
[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)



**MARTINEZ MULTIMEDIA**, Jesus  
[www.dendamar.com](http://www.dendamar.com)



**MAITE BETELU** gestoria, Maite  
[www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)



**BIDEO LAGUNAK**, Jose



**BIYONA** iturgintza, Pili  
[www.fontanerlabiyona.com](http://www.fontanerlabiyona.com)



**EKAIN** liburutenda, Iñaki  
[www.ekain.net](http://www.ekain.net)



**DECO42**



**GOXOGI** gozotegia, Inma eta Joserra



**ITURBE** oinetakoak, M<sup>a</sup> Ixabel



**IZARRA** bitxitegia, Rosa eta Juan  
[www.izarrabitxitegia.com](http://www.izarrabitxitegia.com)



**PARAFARMAZIA LASARTE**, Iñigo  
[www.parafarmazia.com](http://www.parafarmazia.com)



**LARRAÑAGA** harategia, Patxi eta Ana  
[www.patxilarranaga.com](http://www.patxilarranaga.com)



**LIZARRI** optika, Izziar



**MAIANE** perfumeria, Ana  
[www.perfumeriamaiane.com](http://www.perfumeriamaiane.com)



**MARTIN BERASATEGI** jatetxea, Martin  
[www.martinberasategul.com](http://www.martinberasategul.com)



**MAYA** lenteria, Jone



**NOGUES** jostundenda, Gabriel



**OKELA** harategia, Marijo eta Joseba



**OLMI** merceria, Olmi



**ORMAZABAL** Ioradenda, Ramon



**OTAEGI** altzariak  
[www.inchaustidecoracion.com](http://www.inchaustidecoracion.com)



**SUKOA** burdindenda, M<sup>a</sup> Jesus



**VENTANAS SAN MIGUEL**  
[www.ventanassanmiguel.com](http://www.ventanassanmiguel.com)



**ZUMABURU** liburutenda, Lola



**MICHELIN** koperatiba, Lurdes  
[www.coopmichelin.es](http://www.coopmichelin.es)



**ALDATZ** hartz klinika Juanjo  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



**URRUZOLA** merceria, Lurdes



Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

**Larunbata 4**

11:00etan, Ostadar - Zumaia (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinen.  
 12:30etan, Ostadar - Dunboa Eguzki (Infantilen Ohorezko Maila, txapelduen fasea) Michelinen.  
 15:30etan, Ostadar - Beasain (Emakumezkoen Liga) Michelinen.  
 17:15etan, Ostadar - Astigarragako Mundarro (I. Jubenila) Michelinen.

12:00etan, Añorga - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera) Rezola, Añorga.

12:00etan, Beasain - Ostadar (I. Kadetea) Igartza, Beasainen.  
 12:30etan, Kotskas M.B. - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

14:30etan, Añorga - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Rezola, Añorga.  
 16:30etan, Aloña Mendi - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera) Azkoagain, Oñatin.

**Igandea 5**

10:30etan, Ostadar - Usurbil (I. Erregionala) Michelinen.

■ ARETO-FUTBOLA ■

**Ostirala 3**

20:30etan, Aldaz H.K. - Ceramicas

Nogales Zarautz (Nazional B maila) Kiroldegian.

20:30etan, Laskorain - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga. I. maila) Usabal kiroldegia, Tolosan.

■ PILOTA ■

**Larunbata 4**

16:15etan, Intza - Urnieta 3 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz banaka alebina 2. urtea) Michelingo pilotalekuan.  
 16:15etan, Intza I - Zestoa 2 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, Hondarribia 2 - Intza 2 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz banaka infantila 1. urtea) Jostaldi, Hondarribian.

■ IGERIKETA ■

**Larunbata 4**

16:00etan, Buruntzaldea IKT-ko I. mailako infantil, junior eta absolutuak ligako 2. jardunaldia izango dute, Ordizian.

■ ATLETISMOA ■

**Igandea 5**

11:30etan, herriko hainbat korrikalarik 32. bikote mixtoen krosean parte hartuko dute, Zarautzen.



Nahiz eta Ostadarrek partidako lehen gola sartu, Texas Lasartearra taldeak partidari buelta eman zion. Arg:Txema Valles

# Texas Lasartearra taldeak errebantxa hartu zuen

## Lehen Erregional mailako derbi borrokatuan, 3 eta 1 gailendu zen Koldo Ageitosen taldea

Larunbatean, I. Erregionalako taldeen denbortaldiko bigarren buruzburukoa izan genuen. Lehenengoan, Ostadarrek 4 eta 3 irabazi bazuen ere, oraingoan, Texas Lasartearra izan da garaipena eskuratu duen taldea.

Partida borrokatua izan zen Michelingo zelaira hurbildu ziren herritarrek ikusi zutena.

Lehenengo zatian, Igor Berek zuzendutako Ostadarreko taldea aurreratu zen markagailuan.

Halabaina, Texas Lasartearra taldea ez zen atzera bota eta emaitzari buelta eman zioten Koldo Ageitosen mutilek, hiru puntuak eramanez.

**Igoerari begira**

Aste honetako jardunaldia kontuan izanik, hiru partida

falta dira herriko I. Erregionalako taldeek lehenengo fasea amaitzeko eta hauen taldeko lehenengo lauek lortuko dute igoera faserako txartela.

Egun Ostadar hirugarren postuan dago 19 punturekin eta Texas Lasartearra bosgarrena da, 12 punturekin. Beraz, bi taldeek aukerak dituzte, beti ere, geratzen zaien partidetan lan ona egingen badute. •

Kiroletako oharrak

**Kirol gunea itxia eta kiroldegia goizez irekia**

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuk jakin arazten du, datozten abenduaren 6 eta 8ean egun osoaz Kirol Gunea, Michelin, itxia egongo dela. Halaber, erabiltzaileei jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalaren Kiroldegia eta igerilekua, abenduaren 6 eta 8ean, goizez zabalik egongo dela, 9:00etatik 13:00etara.



Ostadar K.F.-ko korrikalariek taldeko argazkia atera zuten Donostiako Maratoian parte hartubaino lehen. Arg:Joseba Iparragirre

**Lasarteoriatarrek Donostiako Maratoian.-**

Hotza eta euriari aurre eginez, lehengo igandean, azaroaren 28an, hainbat herritarrek Donostiako Maratoian parte hartu zuten. Herritarren artean lehena Gonzalo Sukunza izan zen hamaseigarren postua, 2:31:12, eginez. Hauek dira helmugara iritsi ziren herritarrek eta haien denborak: Iñaki Sudupe, 2:57:12; Ismael Hernandez, 2:59:19; Juan Mari Marcos, 3:13:43; Joseba Iparragirre, 3:15:35; Jose Ignacio Elvira, 3:16:18; Eduardo Rivas, 3:18:01; Xabier Arteaga, 3:18:41; Iñaki Letamendi, 3:23:07; Juan Mari Sarobe, 3:25:14; Paulino Barrenechea, 3:34:00; Jose Ramon Mendizabal, 3:36:01; Javi Alonso, 3:43:58; Peio Fadrigue, 3:51:16; Juan Luis de la Mata, 3:53:32 eta Javier Lopez, 4:33:59. •

# Zesta-punta umeei irakasteko topaketa abenduaren 11n

Zesta punta, euskaldunek munduko hainbat tokitara zabalduta zuten pilota jokoa da, besteak beste, Mexiko, Filipinak eta AEBetan jokatzen da, baina bertan gero eta jokalaria gutxiago daude eta galtzen ari den jokoa da.

Hortaz jabetuta Kepa Urdanpilleta jokalaria ohia inguruan sortu den talde batek zesta-punta bultzatzeko topaketa antolatu du: abenduaren 11n arratsaldeko 5etan hasita Michelingo frontoi estalian haur eta gaztetxoei zesta-puntan nola jokatzen den erakusten arituko dira.

Argi dago ikusi eta eza gutuzten ez duenak ezin duela jokatu eta talde honen helburua hurrei erakustea da gainbehera

den jokoari bultzadaxko bat emateko.

Xistera handiak eta pilotak izango dira bertan eta haurrek ikusiko dute ze abiada handia hartzen duen pilotak xextotik ateratzen denean. Ondoren 18:30 inguruan hasita elkartzen diren guztientzat merienda izango da eta Kepa Urdanpilletari, Bartzelonan debutatu zuenetik 50 urte bete direnean, omenaldia egingo diote.

Erakustaldian Gipuzkoako toki ezberdinetako haurren arteko neurketak eta jokalaria helduen arteko neurketak jokatuko dira. Hauen artean izango da Iban Salas profesionala ere. Topaketa doan da eta nahi duten guztientzat ateak zabalik dira. •

Ostirala, 3

**Argazki masiboa**

EUSKARAREN EGUNA dela eta Kuadrillategiok eta Gazte Klubeko gazteek argazki masiboa aterako dute. Andatza plazan, 17:00etan.

**Kontzertua**

EUSKARAREN EGUNA dela eta ITZARTU taldearen emanaldia. Jalgin, 18:00etan, EUSKARAZ.

Astelehena, 6

**Ekitaldia**

HERRI-ESKOLA antolatu du Ikasle Abertzaleak konstituzio egunerako. 10:30ean hitzaldia izango da; 11:00etan Olimpiadak; 12:30en hamaitaketa eta 13:30ean aurkezpena. Landaberri BHI ikastetxean, 10:30ean.

Osteguna, 9

**Hitzaldia**

LA REVOLUCIÓN POR EL TEJADO hitzaldia eskainiko du Lucio Urtubiak, FALEk antolatuta



**El huesped del Sevillano zartzuelan herritarak dantzari**

EL HUESPED DEL SEVILLANO zartzuelan hartuko dute parte herriko lau emakumek, Carmen Vegasek, Soraia Romanek, Maribel Burgosek eta Yanire Guerrerok. Bi abestian hartuko dute parte, *Las lagarteranas* eta *El baile de la Chaconan* Donostiako konserbatorioarekin batera. Koreografiak Angela Cruz irakasleak prestatu ditu.

Toledon kokatutako Zartzuelan, bi pertsonaiak maitasun eta intriga korapilotan nahasten dira. Raquel, Maese Andres juduaren alaba, etengabe estutzen du Don Diego kondeak.

ABENDUAREN 10 ETA 11N

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN, 19:30EAN

"Fundacion anselmo Lorenzo". Hitzaldi hau CNT-ren 100. urteurrenaren ospakizunen barruan dago. Kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 10

**Kontzertua**

EL INCREIBLE HOMBRE ELEFANTE taldearen emanaldia Udalak eta Xpression taldeak sinatutako Gazte Kontzertuen hitzarmenaren barruan. Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Igandea, 12

**Zinea**

ASTROBOY haurrentzako filma eskainiko da. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Asteartea, 14

**Hitzaldia**

HAUR TIRANOAK izeneko hitzaldia eskainiko da Udalak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ

**Oharrak**

**Jaiotzen lehiaiketa**

Danok Kidek antolatutako lehiaketan lanak abenduaren 20an eta 21ean entregatu behar dira 18:00etatik 20:00etara Blas de Lezo kaleko egoitzan.

**Sahararen aldeko egutegia**

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan daude salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, euskal karabana antolatzen laguntzeko da.

**Erraldoiak dantzatzeko ikastaroa**

Erraldoiak dantzatzeko ikasteko Arrieskalleta elkarteak ikastaroa antolatu du. Interesa izanez gero, elkartetik pasa edo arrieskalleta@gmail.com helbidera mezua bidali izena eta telefonoa jarri. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a da.

**Eskutitzak**

**Independentziaren aldeko Lip Dub erraldoia Durangon**

Hurrengo abenduaren 6an Durangon lip dub erraldoi bat egingo da independentzia aldarrikatzeko asmoz. Berau alai, jendetsua, aldarrikatzailea eta partehartzailea izango delarik.

Ibilbideak gutxi gora behera 400 metro izango ditu, eta eguerdi aldera azoka inguruan grabatuko da. Antolatzaileek hurrengo ideia hauek dituzte buruan eta horretarako jendearen parte hartze zabalaren beharria izan beharko du:

- Ikurrina handi bat eramango duten pertsonak
- Folklore eta ihauterietako pertsonaiak. Dantza taldeak, mozoen ikusgarriak.
- Bengala berdeak eramango dituen jendea
- Graffiti berde bat margotuko duten grafitulariak
- Eskalatu eta pankarta bat bota dezaketen pertsonak
- Antzerki taldeak, ahal bada pertsonaia handiekin.
- Munduko herrien banderakin agertuko den jendea.
- Ezpata-dantza edo arku baten antzeko dantzak egingo dituen talde bat
- Agintariena dantzatzeko prest dagoen dantza-talde bat
- Dragoi txinatar baten itxura hartuko duen talde bat
- Euskal Herriko Selektzioaren alde jantziko den hamaitaketa talde bat.
- Sokatiralariak.
- Beste herri kirol batzuk: harri-zulaketa, fardo altxaketa.
- Txirridulariak, surflariak.

afizioa dagoen edozein kirolekin balio dezake

Durangoko ekimenaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, hurrengo web orrialdean aurkitu dezakezue: <http://lipdub.euskalherria.info>

Bestalde, Katalunian ere independentziaren aldeko lip dub-a egin zuten eta oso polita ateratu zitzairen. Interneten ikusgai dago hurrengo web orrialdean: <http://www.youtube.com/watch?v=muTMLuGWrp8>

Independentziaren aldeko ekimen hau, espainiarren konstituzio egunean egingo da. Hain zuzen, besteren artean, Euskal Herria aske izateko eskubidea ukatzen duen norma egin zen eguna ospatzen dute espainiarrek.

Horregatik, Bai Euskal Herriari inposaturiko egutegia salatu eta gure jai egunak aldarrikatu eta abian jartzeko asmoa daukagu. Beraz, espainiar konstituzioaren egunean ez dugu ezer ospatzerik. Alabaina, abenduak 3 euskararen eguna, 1949an ospatu zen lehenengoa eta bestalde Nafarroaren eguna bezala ere ezagutzen da. Batetik zein bestetik euskal herritarrentzat jai garrantzitsua delarik. Egin dezagun bada, gure euskal egutegi propioa!

**Bai Euskal Herriari taldea**

**Euskararen Eguna abenduak 3an bakarrik?**

Azken urteotan hainbat ikerketa eta ebaluazio egin dira ikastetxeetan ikastereduen emaitzak aztertzeko. Eta horietan guztie-

tan agerian geratu da egungo hizkuntza ereduaren sistemak ez duela euskalduntzen. Horregatik, hezkuntza arloko eta euskalduntze arloko eragileak, eta euskal jendartearen oso har, aspaldidanik ari dira eskatzen ereduaren sistema gainditzea eta euskalduntzea bermatuko duen metodologia edo sistema ezarzteko gure eskoletan (ikasle euskaldun eleanitzak bermatuko dituen).

Azken azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Sailak egindakoa dugu ikastetxe publiko eta kontzertatuak 37.000 ikasleren artean, LHko laugarren eta DBHko bigarren mailetan. Bertatik hainbat ondorio esanguratsu eta larri ateratu daitezke gainbegiratu azkar batean. Maila kaxkarrenari begiratzen badiogu, ikus dezakegu lehen hezkuntzan %27,1ak ez duela hasierako maila gainditzen, eta bigarren hezkuntzan %33,5ak; D ereduaren bertan, DBHn %22,5ak hasierako maila dauka, A ereduaren berriz, hamarretik zortzi ikasle ez du euskararen nahikoa ezagutzarik. Hizkuntzaren maila aurreratuari begiratzen badiogu, ikus dezakegu LHn %29,2k ematen duela maila hori, eta DBHn soilik %24,1.

Isabel Celaa anderearen ustez, emaitza hauek 2009koekiko hobekuntza adierazten dute, baina agerraldian adierazi zuenez, eskolak ezin du izan euskararen ezagutza bermatzeko tresna bakarra, eta beste hainbat faktorek ere eragiten dute.

Hezkuntza Sailaren azterketa hau Euskararen Eguna gertu dugunean ezagutu dugu, eta

honek aukera ematen digu azken hausnarketa hauek egiteko. Batetik, eskubideak ditugu (herri baten eskubidea bere hezkuntza sistema antolatzeko bere kultura eta hizkuntzaren transmisio eta garapena ziurtatzu; eta herritarren eskubideak, legetan jasoak, euskararen ezagutza bermatua izateko). Bestetik, betebeharrak (administrazioen obligazioak bermatzeko euskalduntzen duen sistema, besteak beste). Eta azkenik, egin beharrrak (euskaldunok geure eskubideak bermatuak izateko, administrazioekin bat eginda, edo ez egunero geure esparruan egin beharreko).

Euskararen eguna izan dadirio, jendarteko beste esparruetan bezalaxe, eskoletan ere euskal hiztunon eskubideak aldarrikatzeko eguna, administrazioen jarrera salatuz eta administrazioak behartzeko eguna, eta eskola komunitate osoa (ikasle, langile irakasle zein ez irakasle eta guraso) elkarrekin lanean jartzeko eguna. Hurrengo 364 egunak bezalaxe.

**LAB Irakaskuntza**

**Euskararen Nazioarteko Eguna**

Badakizue euskara guztion altxorra dela, euskarak ez duela nazioarteko egun bat behar baizik eta 365 (366 bisurteetan), eta abar. Baina topikoak dira horiek. Udalak euskararen alde egin duena herrenka amaigabe batean jartzea ere posible da egun honetan, Euskara Biziberrietzeko Plana, adibidez. Baina horretan nengoela, esaldi bat

etorri zait burura, Napoleonek ingeles gudarosteak bere aurka gerrarako prest zituenean Josefinari esan omen ziona: jantzi izezazu poliki presa dut eta. Napoleonek bezala euskarak ere presa du normalizatzeko baina, era berean, poliki jantzi behar dela uste dut.

Egia da euskarak presa duela plazara ateratzeko, kalera ateratzeko. Familian, aisian, erligion, teknologia berrietan, administrazioan... euskarari lekua egin behar zaio berandu baino lehen, arnasa behar baitu. Baina oso ezberdina da arnasa behar izatea eta arnasa estuka aritzea.

Euskaraz lan lasterra lan alperra dela esan ohi da eta benetan horrela dela aitortu beharko zaio euskal tradizioari. Izan ere, euskarak ezinbestekoak ditu zimendu sendoak, presaka aritzeko poliki-poliki jantzi behar baita. Denon adostasuna eta akordioa behar da, denon inplikazioa, ondo ehundutako konplizidateak.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur. Lasarte-Oriako Alkatea izateak eskaintzen duen ikuspegitik, gure udalerrian euskarak presa duela guztiok poliki jantzen ari garelaokan nago: talde politiko guztiak elkarrekin, ikastetxeak eta elkarteak euskararen alde elkarrekin lan egiten...

Espero dut ibilbide honek bere jarraipena izan dezala eta arnasa estuka baino, arnasa berrieta egin dezagun bidea, orain arte bezala.

**Jesus Zaballos de Llanos  
Lasarte-Oriako Alkatea**



# Lasarteoriatarrak Durangoko Azokan

Euskal liburu eta disko azoka abenduaren 4tik 8ra arte zabalik egongo da

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako 45. Edizioak bihurtik aurrera guztiok Gerediaga Elkartek antolatzen dituen ekitaldiez, hala nola, hitzaldi, kontzertu edo solasaldi eta partaideek Azokara eramaten dituzten liburu, disko eta abarren aurkezpenez gozatzeko aukera izango dugu. Aurten gainera, egun gehiago edukiko ditugu azoka bisitatzeko, zubi luzeari esker. Abenduaren 4tik 8a bitartean Durangon elkartuko gara!

TXINTXARRI

**E**gun bat falta da 2010ko Durangoko Azokak atek zabal ditzan. Argialetxe, elkarte eta diskoetxeek hainbat berrikuntza aurkeztuko dituzte abenduko zubiaren bost egunetan. Aurten, Kurdistan izango da herrialde gonbidatua. Bere kultura, dantzak... hurbiletik ezagutzeko aukera eskainiko da.

Urtero legez, literatura eta musika argialetxeen berrikuntzak ezagutzeko hitzordua heldu da: Euskal liburu eta diskoen Durangoko azokaren

45. edizioa. Zabalik izango ditu atek abenduaren 4tik 8a bitartean.

Aurten ere herriko idazle, musikariak Durangon egongo dira beraien lan berriak aurkezten.

## Eta Tira eta Tunba

Joseba Tapiak bere lan berria abenduaren 6an aurkeztuko du Ahotsenea aretoan. Arratsaldeko 18:00etan, *Eta Tira eta Tunba* diska berriko abestiak aurkeztuko ditu. Diska hau *Zakurraren biolina* argitaletxearen eskutik iritsiko zaigu merkatura.

## Irrien Lagunak kluba

Pailazoak ere ezin dute huts egin abenduko zubian egiten den hitzordura. Aurten gainera, sortu berri duten Irrien Lagunak klubeko aurkezpena egingo dute abenduaren 4an eguerdiko 12:30etan.

Honetaz gain, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ek disko berria aurkeztuko dituzte abenduaren 6an arratsaldeko 16:00etan Ahotsenea aretoan. *Ongi etorri Pupu eta Lore* diska iritsiko zaigu herriko pailazoan eskutik.

*Irrien lagunak* DVDak eta *Ongi etorri Pupu eta Lore* diskoak Katziporrota argialetxei esker ikusi dute argia.

## Cano bi bider

*Blade of Light* eta *Ojo y medio* izenburua duten liburuak aurkeztuko ditu aurtengo edizioko azokan Harkaitz Canok. Lasarteoriatarren bi obra berri hauek salgai izango dira Durangoko 45. Liburu eta Disko Azokan.

*Blade Of Light* obra University of Nevada Press-i esker argitaratu du eta *Ojo y medio* liburu Meettok argitaletxeari esker.

## Biladi Hadi

Arramazka taldea ere aurkituko dugu Durangoko azokan. Askapenaren *Biladi Hadi* proiektua aurkeztuko dute abenduaren 8an arratsaldeko 15:30etan Ahotsenea aretoan.

Arramazkak Rim Banna abeslariak eta DAM talde palestiniarrak elkarlanean egindako Mikel Laboaren *Gure hitzak* abestiaren bertsioaren aurkezpenaz gain, abestia eskainiko dute.

## Ez galdu aukera

Herriko artistez gain editoriak, banatzaileak, diskoetxeak, erakundeak eta kultur eragile ugari parte hartuko dute Azokan. Euskarazko argitalpenak eta euskal gaiak edozein hizkuntzatan aurkitu daitezke. Ez galdu aukera, zubian, abenduaren 4tik 8a bitartean Durangon. Goizeko 10:30etatik arratsaldeko 20:00ak arte egongo da azoka zabalik. •

*Durangoko Azokoraren 45. edizioan Joseba Tapia, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Harkaitz Cano eta Arramazka taldeko kideek euren lan berriak aurkeztuko dituzte*



## IX. Multimuskala Michelingo tenis eremuan egongo da 17, 18 eta 19an

2010.eko Multimuskala jaialdia abenduaren 17, 18 eta 19an burutuko da Michelingo teniseko pista estalian. Aurtengo egitarau zabalean berrikuntza nagusia igandean egun osoz egingo den euskal jaia izango da eta bestalde, ostiral eta larunbatean kontzertuak izango dira Michelingo tenis eremuan eta herriko zenbait tabernetan. Ostiralean gaueko 21:00etan hasiko dira kontzertuak Michelingo eta larunbatean arratsaldeko lehen orduetan bertan zein tabernetan. Abend, Jalgi, Sustrai, Obelxi, Xirimiri, Ilargi eta Timon tabernek hartuko dute parte Multimuskalean.

Talde ezagun batzuek joko dute, besteak beste, Zea Mais eta Naizroxa taldeek, eta herriko talde batzuek ere izango dute tokia kartelean, Hilotz, Oreindik eta Arramazkak hain zuzen ere. Multimuskalari buruzko informazioa <http://multimusikala.blogspot.com/> eta facebook-en.

Otorduei dagokionez, larunbatean babarrun jana egingo da, eta igandeko euskal jaieren baitan bazkari herrikoa.

Ostadar, Erketz, Amalur, Xumela eta Bertso Eskola ari dira Euskal jaieren antolaketan Multimuskala Elkartearekin batera. Trikitilari, txistulari, kantu jira, joku herriko, bertsolari, Fermin Valencia, euskal erromeria,... denetik izango da eta baserriarrez janzteko deia luzatu dute. •



Jende ugari hurbiltzen da urtero Durango Azokara. Ohitura bihurtu da abenduko zubian Durangoruntz egitea

**GABONAK DATOZ!!**

EGUNERO IPUIN BAT, EGUNERO ABENTURAK!

**amaraun** ludoteka

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // [aisia@ttakun.com](mailto:aisia@ttakun.com) // [www.ttakun.com](http://www.ttakun.com)